Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

5436

AGINDUA, 2010eko azaroaren 3koa, Kulturako sailburuarena, «Kultura Bonoa» garatzeari eta sustatzeari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Autonomia Estatutuaren 10.17 artikuluan xedatutakoaren arabera, eskumen osoa du Kulturaren arloari dagokionez, Konstituzioaren 149.2 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 15. artikuluak Kultura Sailari esleitzen dizkio, besteak beste, kultura-sustapenari dagozkionak, bai eta musika, antzerki, dantza, liburu, ikus-entzunezko eta arte bisualei dagozkienak ere.

Eskumen horiek Kultura Sailaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari atxikita daude organikoki, halaxe dago-eta araututa Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren 11. artikuluan.

Arestian aipatutako otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, zehazki 11.3 artikuluko f) eta g) idatz-zatietan dioenez, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren zereginak dira lehen aipatu ditugun arlo horietan kultura kontserbatzeaz, sortzeaz eta zabaltzeaz arduratzea, bai eta Euskadiko kultura-industriak garatzen laguntzea eta bultzatzea ere.

Alde horretatik, Euskadiren ekonomia biziberritzeko ekintzak garatzeko Eusko Jaurlaritzak duen egitasmoaren baitan, eta 2009. urtean lorturiko emaitza onak ikusirik, Kultura Sailak «Kultura Bonoa-Bono Cultura» programa berritu nahi du, alegia, arte- eta kultura-ekoizpenaren merkatua bultzatzeko ekimena, hain zuzen 2010-2011 Gabonetako kanpainan, Euskadin, aipaturiko kultura-produktu horiek suspertzeari begira.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea

1.– Euskarri ezberdinetako kultura-produktuen erosketa lagunduko du diruz Eusko Jaurlaritzako

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

5436

ORDEN de 3 de noviembre de 2010, de la Consejera de Cultura, para el desarrollo y promoción del «Bono Cultura».

La Comunidad Autónoma del País Vasco, a tenor del artículo 10.17 de su Estatuto de Autonomía ostenta la competencia exclusiva en materia de Cultura sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.2 de la Constitución.

El artículo 15 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, asignó al Departamento de Cultura, entre otras, las relativas al ámbito de la promoción de la cultura y las de las áreas de la música, teatro, danza, libro, audiovisual y artes visuales.

Dichas competencias se encuentran orgánicamente adscritas a la Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura, en virtud del artículo 11 del Decreto 25/2006, de 14 de febrero, por el que se regula la estructura orgánica del Departamento de Cultura.

De conformidad con lo dispuesto en el anteriormente referido Decreto 25/2006, de 14 de febrero, en los apartados f) y g) de su artículo 11.3, a la Dirección de Promoción de la Cultura le corresponde el velar por la conservación, creación y difusión de la cultura en las áreas anteriormente señaladas así como apoyar el desarrollo de las industrias culturales en el ámbito de Euskadi.

En este sentido, dentro del proyecto del Gobierno Vasco de impulsar el desarrollo de acciones diversas encaminadas a la reactivación económica de Euskadi, es intención del Departamento de Cultura atendiendo a los buenos resultados alcanzados en el año 2009, renovar el programa «Kultura Bonua-Bono Cultura», una iniciativa orientada a la dinamización del mercado de la producción artística y cultural a través de la incentivación de dichos productos culturales en nuestra Comunidad Autónoma durante la campaña navideña 2010-2011.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

1.– El Departamento de Cultura del Gobierno Vasco subvencionará la compra de productos cultura-

Kultura Sailak, kultura-bono batzuen bidez (52.000). Bonook hautatutako finantza-entitatearen bitartez jarriko dira salgai, eta berorien bitartez erabiltzaileak bere diruaren balioa handitu ahal izango du, bai liburuak edo diskoak erosterakoan, bai museo batean bisita egiteko edo zinera, antzerkira edo kontzertu batera joateko.

2.– Bono bakoitzak 25 euroko kostua izango du, baina 40 euroko balioa emango dio erabiltzaileari kanpaina honi atxikitzen diren establezimenduetan liburuak edo musika-euskarriak erosteko, edo museo eta zuzeneko ikuskizunetan edo bestelako ekitaldietarako sarrerak erosteko. Bono bakoitzaren 15 euroren diferentzia hori Eusko Jaurlaritzak ordainduko du.

3.– Eraginkortasuna eta programaren gaineko kontrola bermatzeko, Kultura Sailak hautatutako entitate kolaboratzaileak txartel, multizerbitzu kutxazainen edo antzekoen bidez baino ezingo du kultura-bonoa saldu, nahiz eta, Eusko Jaurlaritzak berariaz baimenduz gero, bestelako biderik ere erabili ahalko den. Alde horretatik, kreditu-txartel bakoitzarekin kultura-bono bat baino gehiago erostea eragozten duten mekanismoak jarriko ditu entitate kolaboratzaileak, dela txartela blokeatuz dela bestelako prozeduraren baten bidez.

2. artikulua.– Entitate kolaboratzailea.

1.– Aukeratzen den entitatea «entitate kolaboratzailetzat» joko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean xedatutakoarekin bat (Testu Bategina azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen), eta testu bategin horretan eta hura garatzen duten xedapenetan diru-laguntzen kudeaketan kolaboratzaile diren entitateei begira aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko zaio.

2.– Behin entitate kolaboratzailea aukeratuz gero, horren berri emango du Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara emandako ebazpen baten bidez.

3.– Programa honetarako eskabideak aurkezten dituzten pertsonek egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izango dituzte Kultura Sailean, hautatzen den entitate kolaboratzaileari dagokionez. Behin entitate kolaboratzaileari entzun ondoren, erreklamaziook gauzatzeari ekingo zaio, eta baietsi edo ezetsi egin dira, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak emandako ebazpen baten bidez.

3. artikulua.– Diru-baliabideak.

1.– Helburu horretarako 780.000 euro erabiliko dira.

2.– Diru-kopuru hori –eskuratzea espero den aurreikusitako kultura-bonoen kopuruaren arabera egon daitekeen doikuntza erantsita– entitate kolaboles en sus múltiples soportes, mediante la adquisición de unos «Bonos Cultura» (52.000), puestos a la venta a través de la entidad financiera que resulte seleccionada con los que el usuario/a podrá incrementar su dinero para adquirir tanto libros o discos, como entradas para visitar un museo, asistir al cine o al teatro o acudir a un concierto.

2.– Cada uno de estos «Bonos Cultura» tendrá un precio de venta de 25 euros y dará a su portador/a un valor de 40 euros para la adquisición de libros y soportes musicales así como entradas a museos y espectáculos en vivo y otros eventos culturales en la red de establecimientos adheridos a esta campaña. La diferencia de 15 euros en cada Bono será aportada por el Gobierno Vasco.

3.– Por razones de operatividad y control del programa la venta de Bonos Cultura por la entidad colaboradora que seleccione el Departamento de Cultura se efectuará a través de tarjeta y cajeros multiservicios o similares, pudiendo complementarse a través de otros canales si así fuera aprobado por el Gobierno Vasco, a razón de un único bono por tarjeta. En tal sentido la Entidad colaboradora habilitará, entre otros extremos, los mecanismos necesarios para garantizar que no se pueda adquirir más de un Bono por tarjeta, a través del bloqueo de la misma o por otro procedimiento al efecto.

Artículo 2.– Entidad colaboradora.

1.– La entidad seleccionada tiene la condición de entidad colaboradora de conformidad con lo establecido en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, aplicándose a la entidad el régimen jurídico previsto en dicho Texto Refundido y en sus disposiciones de desarrollo para las entidades colaboradoras en la gestión de subvenciones.

2.– Una vez seleccionada la entidad colaboradora el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes procederá a dar publicidad de dicha circunstancia en el Boletín Oficial del País Vasco mediante la Resolución correspondiente.

3.– El Departamento de Cultura podrá recibir las reclamaciones que por parte de las personas solicitantes del presente programa se formulen en relación con la entidad colaboradora seleccionada, las cuales se sustanciarán una vez oída la misma. La estimación o desestimación de la reclamación presentada se efectuará mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

Artículo 3.– Recursos económicos.

1.– El importe económico destinado a dicha finalidad es de 780. 000 euros.

2.– La citada cantidad, con el ajuste que pudiera corresponder en función del número total de Bonos Cultura cuya adquisición se prevé, será ingresada en

ratzaileak adierazitako kontu korrontean sartuko da, ordainketa bakarrean, aurreko artikuluan aipatutako entitatearekiko lankidetza hitzarmena sinatu eta gero.

4. artikulua.– Laguntzen izaera.

Programa honen baitan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak izango dira.

5. artikulua.– Laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa-zereginak betetzea.

6. artikulua.– Onuradunak.

Ezarritako bideen bitartez kultura-bonoa eskuratzen duten pertsona fisikoak izango dira laguntza hauen onuradun zuzenak.

Finantza-entitate kolaboratzaileak eskuratuko dituen 52.000 bonoak hiru lurralde historikoetan banatuko dira, honako irizpide eta proportzio hauei jarrituta:

la cuenta indicada por la entidad colaboradora mediante un único pago, una vez suscrito el Convenio de Colaboración con dicha entidad que se prevé en el artículo anterior.

Artículo 4.– Naturaleza de las ayudas.

Las ayudas que se concedan en el marco del presente programa tendrán la consideración de subvenciones a fondo perdido no reintegrables.

Artículo 5.– Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Promoción de la Cultura la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria.

Artículo 6.– Beneficiarios.

Se consideraran beneficiarios directos de estas ayudas las personas físicas que adquieran un Bono Cultura por los medios y cauces establecidos.

Los 52.000 Bonos Cultura serán distribuidos por la entidad financiera colaboradora en los tres Territorios Históricos, siguiendo los siguientes criterios y proporciones:

Lurralde Historikoak	Ehuneko demografikoa	2009ko salmenten ehunekoa	Azken batezbestekoa	Bono kop.
Araba	% 14	% 16	% 15	7.800
Bizkaia	% 53	% 62	% 58	30.160
Gipuzkoa	% 32	% 22	% 27	14.040
Saltzeko bonoak, guztira				52.000

*(Eustat 2007)

Territorios Históricos	*% demográfico**	*% ventas 2009*	*Promedio final*	*N.º de bonos*
Álava	*14%*	*16%*	*15%*	*7.800*
Bizkaia	*53%*	*62%*	*58%*	*30.160*
Gipuzkoa	*32%*	*22%*	*27%*	*14.040*
Total bonos disponibles				*52.000*

**(Eustat 2007)*

Dena den, eskaera dela-eta egoki ikusten bada, salmentaren azken astean egokitzapenak egin ahal izango zaizkio aipaturiko lurraldeen arteko banaketa horri, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak emandako ebazpen baten bidez, ahalik eta bono gehien bana daitezen interesdunen artean. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta, orobat, entitate kolaboratzaileari jakinaraziko zaio.

7. artikulua.– Material diruz lagungarria.

Kultura-bonoen bidez, honako kultura-produktu hauen erosketak egin ahal izango dira:

No obstante, si el estado de la demanda así lo aconsejara, durante la última semana de venta y mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes podrán efectuarse ajustes a dicha distribución, a fin de posibilitar que se distribuyan el mayor número de bonos entre los interesados. Dicha Resolución será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco dándose traslado de la misma a la entidad colaboradora.

Artículo 7.– Material subvencionable.

Los Bonos culturales servirán como medio de pago de la compra de los siguientes productos culturales:

Liburuak	Testu-liburuak, ikasketakoak eta profesionalak kenduta
Musika	Edozein euskarritan (CD, biniloa, DVD…); zuzeneko kontzertuetarako sarrerak
Zinea	DVD eta beste euskarri batzuk; zine-sarrerak
Zuzeneko ikuskizunak	Ikuskizun eszenikoetarako sarrerak
Museoak	Museotan sartzeko sarrerak eta leialtasun-txartelak

Libro	*Exceptuando libro de texto, de estudios y profesionales*
Música	*En cualquier soporte (cd, vinilo, dvd…); entradas a conciertos de música en directo*
Cine	*DVD y otros soportes; entradas de cine.*
Espectáculo en vivo	*Entradas para espectáculos escénicos*
Museos	*Entradas y tarjetas de fidelización para la entrada a museos.*

Programatik kanpo geratuko dira eta, beraz, ezingo dira bono bidez erosi, honako hauek: papergintzako gaiak; informatika eta elektronikako tresneria, softwarea eta gai suntsikorrak; joko eta bideojokoak.

Kultura Sailak programaren helburuarekin bat datozen beste produktu eta zerbitzu batzuk gehitu ahal izango ditu edozein unetan, EHAAn argitaratzen den Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

8. artikulua.– Programari atxikitzeko baldintzak.

1.– «Kultura Bonoa» programari atxikitzeko eta, beraz, bonoa ordaintzeko bidetzat onartzeko, honako baldintza hauek bete behar dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten establezimenduek, pertsona fisikoak izan zein juridikoak izan.

a) Honako alor hauetan kultura produktu edo ondasunak kontsumitzaileari saltzea izan behar du haien jardueraren helburua: liburuak, musika, zinema, ikuskizun eszenikoak (antzerkia, dantza, musika…) eta museoak.

b) Enpresa txiki edo ertainak izatea (horretarako, Europako Batzordearen 2008ko abuztuaren 6ko 800/2008 Erregelamenduko I. eranskina hartuko da aintzat) edo Merkataritza-jardueraren 7/1994 Legearen arabera «Merkataritzagune handia» katalogaziomailara iristen ez diren enpresak izatea (lege hori 7/2008 Legearen bidez aldatu zen).

c) Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak konplituak izatea.

2.– Horri dagokionez, gutxieneko baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen edozein dokumentu eskatu ahal izango du Eusko Jaurlaritzak, bestela nahitaez bete beharreko formalidadeez gain.

Quedan expresamente fuera del programa no pudiendo adquirirse a través del «Bono Cultura» los siguientes productos: artículos de papelería; equipos, software y consumibles de informática y electrónica; juegos y videojuegos.

El Departamento de Cultura podrá incorporar en cualquier momento otros productos y servicios que respondan al objeto del programa, mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, que se publicará en el BOPV.

Artículo 8.– Condiciones de adhesión.

1.– Podrán adherirse al programa «Bono Cultura», aceptando el mismo como medio de pago, aquellos establecimientos radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco que, con independencia de que sean personas físicas o jurídicas, cumplan los siguientes requisitos:

a) Tengan como objeto de su actividad la de la venta al consumidor/a de productos y bienes culturales en los siguientes ámbitos: Libro, Música, Cine, espectáculos escénicos (teatro, danza, música…) y Museos.

b) Sean pequeñas y medianas empresas, tomándose para ello como referencia el anexo I del Reglamento n.º 800/2008, de la Comisión Europea, de 6 de agosto de 2008; o sean empresas que no alcancen la catalogación de «Gran establecimiento comercial» de conformidad con la Ley 7/1994, de la Actividad Comercial, modificada por la Ley 7/2008.

c) Que se encuentren en situación regularizada con Hacienda y Seguridad Social.

2.– En tal sentido, sin perjuicio de cuantas otras formalidades pudieran estar obligadas a cumplir, el Gobierno Vasco podrá solicitar en cualquier momento cualquier documento acreditativo del cumplimiento de tales requisitos mínimos.

Gutxieneko baldintza hauek betetzen ez dituzten entitateek aurkeztutako eskaintzak ez dira aintzat hartuko eta ez dira onartuko.

9. artikulua.– Atxikitzeko epea eta prozedura.

Merkataritza-establezimenduak «Kultura Bonoa» programari atxikitzeko epea 2010eko azaroaren 17an hasiko da, eta 2010eko abenduaren 3an amaituko (biak barne).

Atxikitzeko inprimakia Eusko Jaurlaritzako Zuzenean - Herritarrentzako Arretarako Guneko bulegoetan dago eskuragai, bai eta Interneteko www.kultura.ejgv.euskadi.net helbidean ere. Hura bete eta honako tokietako batean entregatu beharko da:

– Eusko Jaurlaritzako Zuzenean - Herritarrentzako Arretarako Guneko bulegoetan.

– Postaz:

Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco

Kultura Sustatzeko Zuzendaritza (Kultura Bonoa)

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Atxikipen-eskaria onartua edo ukatua izan den jakinarazi dio Eusko Jaurlaritzak eskatzaileari, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bidez. Behar duten dokumentazioa eta Programari buruzko sustapen-materiala eskuratuko zaie atxikitako establezimenduei.

Kultura Sailak «Kultura Bonoa» programari atxikitako establezimenduen zerrenda argitaratu eta eguneratuko du www.kultura.ejgv.euskadi.net atarian.

10. artikulua.– Atxikitako establezimenduaren betebeharrak.

Atxikipen-eskabidearen bidez «Kultura Bonoa» programari atxikitako establezimenduak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Hitzarmenari atxikitzen zaion enpresak konpromisoa hartuko du publizitate-materialak jasotzeko eta establezimenduan, ongi ikusteko tokian toki batean, jartzeko.

b) Ez die erosleei esku-dirutan itzulketarik egingo, erosketaren balioaren eta bonoaren arteko diferentzia berdintzeko.

c) Atxikitako establezimenduek galdera-sorta labur baten aleak jarriko dituzte leku ageri batean, hala nahi duten bezeroek bete dezaten. Kanpainaren bukaeran, galdera-sortak adierazitako helbidera bidaliko dira.

d) Prozesuak irauten duen bitartean, atxikitako establezimenduek telefono-dei bat jaso dezakete, kanpaina zer moduz doan egiaztatu ahal izateko eta haien iritzia jakiteko.

No se tendrán en cuenta ni admitirán las solicitudes presentadas por entidades que no cumplan con los mismos.

Artículo 9.– Plazo y proceso de adhesión.

El plazo para que los establecimientos comerciales puedan adherirse al programa «Bono Cultura» será desde el 17 de noviembre de 2010 hasta el 3 de diciembre de 2010 (ambos inclusive).

El formulario de adhesión estará a disposición en las oficinas de Zuzenean, Servicio de Atención Ciudadana del Gobierno Vasco y en la dirección de Internet www.kultura.ejgv.euskadi.net, el cual podrá remitirse por uno de los siguientes medios:

– En las oficinas Zuzenean, Servicio de Atención Ciudadana del Gobierno Vasco.

– Por correo postal:

Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco

Promoción de la Cultura (Bono Cultural)

C/ Donostia-San Sebastián, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

El Gobierno Vasco notificará a los solicitantes la resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se acepta o deniega la solicitud de adhesión. A los establecimientos adheridos se les facilitará la documentación necesaria y el material promocional del Programa.

El Departamento de Cultura publicará y actualizará en el portal www.kultura.ejgv.euskadi.net el listado de los establecimientos adheridos al programa «Bono Cultura».

Artículo 10.– Obligaciones del establecimiento adherido.

El establecimiento adherido al programa «Bono Cultura» a través de la suscripción de la solicitud de adhesión adquirirá las siguientes obligaciones:

a) La empresa adherida se compromete a la recepción y colocación de los materiales publicitarios en un lugar visible del establecimiento.

b) No se devolverá a los compradores dinero en metálico sobre la diferencia entre la compra y el valor del bono.

c) Los establecimientos adheridos dispondrán de ejemplares de un breve cuestionario que situarán en un lugar visible para cumplimentar por aquellos clientes que así lo deseen. Una vez cumplimentados los cuestionarios serán reenviados a la dirección que se indique para ello.

d) Los establecimientos adheridos podrán recibir una llamada para verificar el funcionamiento y su opinión sobre el proceso y la campaña en general.

11. artikulua.– Laguntzen indarraldia eta programaren egutegia.

1.– Kultura Bonoak EAEko lurralde-eremuan baino ez du baliorik izango.

Programa honekiko atxikipena, ondorio guztietarako, 2010eko abenduaren 13an jarriko da indarrean, eta 2011ko urtarrilaren 31n amaituko, honako epe hauen arabera:

a) Pertsona interesdunek 2010eko abenduaren 13tik 2011ko urtarrilaren 5era bitartean erosi ahal izango dituzte bonoak finantza-entitate kolaboratzaileak gaitutako kutxazainetan.

b) Bonoak erosten dituzten pertsonek 2010eko abenduaren 13tik 2011ko urtarrilaren 20ra arte erabili ahal izango dituzte soilik Programari atxikitako establezimenduetan.

c) Behin epea igaroz gero, ez dute ordaintzeko baliorik izango.

d) Programari atxikitako establezimenduek jasotzen dituzten bonoak dirutan trukatu ahal izango dituzte, aukeratzen den finantza-entitatean, 2010eko abenduaren 14tik 2011ko urtarrilaren 31ra bitartean. Behin epea igaroz gero, bonoak ezingo dira dirutan trukatu entitate kolaboratzaileetan.

2.– Kultura Sailak data hauek aldatu ahal izango ditu, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bidez, baldin eta antolamenduzko arrazoiek edo bestelako gorabeherek hala aholkatzen badute. Kasu horietan, www.kultura.ejgv.euskadi.net atarian emango da horren berri.

12. artikulua.– Programari atxikitako entitateek jasotako bonoak dirutan trukatzeko prozedura.

1.– Trukea finantza-entitate kolaboratzailearen edozein sukurtsaletan egin ahal izango da, bertan fisikoki agertuz. Jasotako bonoak entregatu ondoren, haien balioa kalkulatuko da, alegia biderkatuz 40 euro bono bakoitzeko. Horren emaitza programari atxikitako establezimenduak finantza-entitate kolaboratzailean propio izango duen kontu korrontean sartuko da. Inoiz ere ez da esku-dirurik emango bonoen truke.

2.– Trukea astean behin egin ahal izango da, lehen adierazitako 2011ko urtarrilaren 31ko eguna epemuga dela.

3.– Iruzurrik egon ez dadin, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak emango duen programarekiko atxikipen-dokumentazio egiaztatzailea erakutsi beharko da trukea egiterakoan. Arrazoi berberagatik, trukaturiko bono bakoitzari dagokion erosketa-tiketa eskatu ahal izango du Eusko Jaurlaritzak, berariaz establezimenduei jakinarazita.

Artículo 11.– Vigencia de las ayudas y calendario del programa.

1.– La validez del Bono Cultura se limitará en exclusiva al ámbito territorial de la CAPV.

La adhesión al presente programa entrará en vigor a todos los efectos el 13 de diciembre de 2010 y extenderá su aplicación hasta el 31 de enero de 2011, conforme a los siguientes plazos:

a) Los bonos se podrán adquirir por las personas interesadas en los cajeros habilitados por la entidad financiera seleccionada durante el período comprendido entre los días 13 de diciembre de 2010 y 5 de enero de 2011.

b) Las personas que adquieran los bonos podrán utilizarlos exclusivamente en los establecimientos adheridos al Programa entre los días 13 de diciembre de 2010 y 20 de enero de 2011.

c) Transcurrido dicho plazo perderán su validez como medio de pago.

d) Los establecimientos adheridos al programa podrán hacer efectivos los bonos que hayan recogido entre el 14 de diciembre de 2010 y el 31 de enero de 2011 en la entidad financiera seleccionada. Transcurrida dicha fecha no podrán hacerse efectivos los Bonos ante la entidad colaboradora.

2.– En todos los casos, el Departamento de Cultura, mediante resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, podrá modificar estas fechas si las circunstancias u otras razones organizativas así lo aconsejaran, dando la oportuna publicidad de ello en el portal www.kultura.ejgv.euskadi.net.

Artículo 12.– Procedimiento de canje de los bonos recibidos por los entes adheridos al programa.

1.– El canje deberá efectuarse personándose físicamente en cualquier sucursal de la entidad financiera colaboradora. Tras la entrega de los bonos recibidos se calculará su valor multiplicando su número por 40 euros/unidad. El total resultante se ingresará en el número de cuenta de esta entidad colaboradora que a tal efecto disponga el establecimiento adherido al programa. En ningún caso se canjearán los bonos por dinero en metálico.

2.– Este canje podrá ser efectuado una vez por semana, con la fecha límite señalada del 31 de enero de 2011.

3.– A fin de evitar fraudes, a la hora de efectuar el canje se deberá mostrar la documentación acreditativa de la adhesión al programa que facilitará la Dirección de Promoción de la Cultura del Gobierno Vasco. Por esta misma razón, el Gobierno Vasco podrá solicitar, si así lo comunicara expresamente a cualquier establecimiento, el adjuntar el ticket de compra correspondiente a cada uno de los bonos canjeados.

13. artikulua.– Ikuskatzea eta ez-betetzeak.

Programaren arduraduna den aldetik, Kultura Sailak eskubidea izango du baliabide publikoak zuzen aplikatzen direla eta laguntza programa egokiro betetzen dela egiaztatzeko egoki ikusten dituen egiaztatze, ikuskatze eta gainerako neurriak hartzeko.

Atxikitako establezimenduen aldetik ez-betetzeren bat gertatuz gero, «Kultura Bonoa» programarekiko atxikipen hori automatikoki baliogabetu ahal izango du Kultura Sailak, eta horren berri eman finantza-entitate kolaboratzaileari, bono-trukea eragozteari begira.

Diru-laguntzen fiskalizazio-lanetan eskatzen dioten informazio guztia eman berako diote atxikitako establezimenduek Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Kultura-bonoen erosleek ematen dituzten datu pertsonalak Eusko Jaurlaritzaren jabetzapeko fitxategi automatizatu batean sartu ahal izango dira, soil-soilik laguntza-programa honen kudeaketa zuzena eta aurkeztutako eskaeren jarraipen egokia egite aldera. Fitxategi hori Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikotik eta gainerako garapen-arauetatik eratortzen diren legebetekizunen mendean egongo da.

Bigarrena.– Oinarri hauetan aurreikusten ez diren alorretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak aginduko du.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa jar diezaioke Kultura sailburuari hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezake Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik.

Artículo 13.– Inspección e incumplimientos.

El Departamento de Cultura como responsable del programa, se reserva el derecho de realizar cuantas comprobaciones, inspecciones y demás medidas de control estime oportunas para velar por la correcta aplicación de los recursos públicos y para verificar el correcto desarrollo y aplicación del presente Programa de ayudas.

En el supuesto de que se operase algún incumplimiento por parte de los establecimientos adheridos, el Departamento de Cultura, podrá cancelar automáticamente la adhesión de la misma al programa «Bono Cultura», y comunicar tal circunstancia a la entidad financiera colaboradora, a fin de impedir el canje de bonos.

Los establecimientos adheridos se obligan a facilitar cuanta información sea requerida por el departamento de Cultura, la Oficina de Control Económico del Gobierno Vasco y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Los datos personales obtenidos de los compradores de los bonos cultura podrán ser incorporados a un fichero informatizado propiedad del Gobierno Vasco, con la finalidad exclusiva de realizar una adecuada gestión del presente Programa de ayudas y el seguimiento de las solicitudes presentadas. Dicho fichero se someterá a cuantas obligaciones legales deriven de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de carácter personal y demás normas de desarrollo.

Segunda.– En todo lo no previsto en estas bases, se estará a lo establecido en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

Tercera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación.

Laugarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 3a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

Cuarta.– La presente Orden surtirá efectos desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de noviembre de 2010.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

«KULTURA BONOA» PROGRAMARI ATXIKITZEKO ESKARIA

Saltokiaren izena	
Saltokiaren zenbakia	
Jarduera	
IFK	
Jardueraren idazpurua	
Helbidea	
Udalerria	
Posta kodea	
Lurralde historikoa	
Harremanetarako pertsona	
Harremanetarako telefonoa	
Sakelakoa	
E-mail	
Webgunea	

Behean sinatzen duenak, erreferentziako saltokiaren ordezkaria baita, adierazten du:

– Erreferentziako saltokiaren arduraduna da, eta horretarako behar den ahalmen nahikoa du.

– «Kultura Bonoa» kudeatzeko ezarri diren baldintzak eta prozedura ezagutzen ditu.

– Programari atxikitzen da, eta bertan ezarritako konpromisoak betetzeko hitza ematen du.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak zuzen dituela adierazten du, bai eta EAEko administrazioarekiko obligazioak egunean dituela ere, eta baimena ematen dio administrazio horri begira behar diren egiaztapenak egin ditzan.

– Laguntzak arautzen dituen Aginduko 7. artikuluan xedatutako atxikipen-baldintzak betetzen ditu.

– Ez du zigor administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik, barne hartuta sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen indarrez.

Sinadura eta zigilua

Izpa. jauna/andrea .....

OHARRAK

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak jakinarazten dizu eranskin honetan emandako datu pertsonalak Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren mendeko fitxategi automatizatu batean sartuko direla.

Fitxategi horren erabilera Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatutako laguntzen kudeaketa alorrera mugatuko da soilik. Finantza-entitate kolaboratzaileari laga ahal izango zaio, entitate hori datuak tratatzeko arduraduna izango baita programak irauten duen bitartean, baina soil-soilik programaren ondorioetarako.

Hala nahi izanez gero, datuok eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez balia zaitezke, horretarako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzara idatzi bat bidaliz, bera baita fitxategiaren arduraduna: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

SOLICITUD DE ADHESIÓN AL PROGRAMA «BONO CULTURA»

Nombre del comercio	
Número de comercio	
Actividad	
CIF	
Epígrafe de la actividad	
Dirección	
Municipio	
Código postal	
Territorio histórico	
Persona de contacto	
Teléfono de contacto	
Móvil	
E-mail	
Web	

La persona firmante, en representación del comercio de referencia manifiesta:

– Que declara ser representante del comercio referido y que ostenta poder suficiente para dicha representación.

– Que conoce las bases y el procedimiento establecido para gestionar el «Bono Cultura».

– Que se adhiere al programa y se compromete a observar los compromisos establecidos en él.

– Que declara tener su situación reguralizada en cuanto a sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, así como estar al corriente de las obligaciones con la administración de la CAV, autorizando a la misma a realizar las comprobaciones oportunas.

– Que cumple con los requisitos de adhesión fijados en el artículo 7 de la Orden reguladora de ayudas.

– Que no ha sido sancionado administrativamente o penalmente con la perdida de la posibilidad de obtención de subvención o ayuda pública, ni que esta que estén incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Firma y sello

Fdo. D./Dña.: .....

En

OBSERVACIONES

La Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este anexo van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal.

El uso de dicho fichero, se circunscribe al uso exclusivo de la gestión de las ayudas promovidas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco y podrá ser cedido a la entidad financiera colaboradora que actuará como encargada del tratamiento de datos durante la vigencia del programa y a los solos efectos del mismo.

Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Promoción de la Cultura, responsable de dicho fichero, c/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.